

**2005EKO MARTXOAREN 10EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamarra.

**HILABETEA:** Martxoa.

**URTEA:** Bi mila eta bost.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Imanol Aranburu Gutierrez  
Jon Olano Arrese  
Malu Valles Fernandez  
Aitor Aldasoro Iturbe  
Joan Martin Aldaregia Etxebarria  
Jon Kortaberria Lasa  
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga  
Alfonso Segade Gonzalez  
María Pilar Vispo Chamosa  
Julio Herreros Serna  
Gonzalo Zaldo eta Arana  
Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEAK:** Jose Antonio Sanchez Gutierrez  
Ana Asla Egialde

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bilkuran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

**1.- AURREKO AKTAK.** 2004ko abenduaren 29 eta 31ko akten onespena.

2004ko abenduaren 29ko eta 31ko akten berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Inaki Saldaña, EBko ordezkariak adostasuna azaldu du, baina adierazi du ez dela errespetatu gutxienez bi hilabete behin Osoko Bilkura egitea.

Julio Herreros jaunak ere aktei buruzko bere on iritzia azaldu du.

Alfonso Segade PSE-EE/PSOeko ordezkariak aktarekiko adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP):

“Los Ex batasunos solo pueden ir a titulo personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el publico asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente ( Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak, EAJ/PNV-EA: “Julio me hago responsable”

Bozketa egina, aho batez onartu dira bi aktak, aipatutako aldaketarekin.

## **2.- LANPOSTUEN BALORAZIOA**

Alkate jaunak, 2005eko martxoaren 7ko Gobernazio Batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“AURREKARIAK:**

1. 2003-03-25ean, Enpresa-batzordearekin batera lanpostuen balorazio-azterlana egiteko erabakia hartu zen ondorengo baldintzen arabera:

- a) Beasaingo Udaleko eta Antzizar kiroldagiko lanpostu guztiak baloratuko dira.
- b) Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko eta Udal Euskaltegiko bulegoetako lanpostuak ere baloratu egingo dira.
- c) Agintealdia amaitu baino lehen, Balorazio-azterlana egiteko erabakia hartuta egon beharko du eta baita hautatua izan den enpresa kontratatzea ere, areago, kontratua ere eginda egon behar luke.
- d) Balorazio-azterlana 2003ko irailean hasiko da.
- e) Igoera izaten duten lanpostuen atzera-eragina, 2003ko abuztuaren 1eko datara artekoa izango da.
- f) Alabaina, bilera hau egin baino lehenago erreklamazioak aurkeztu eta horren ondorioz ordainsari handiagoak lortzen dituzten langileentzako beste atzera-eragineko data batzuk ezarriko dira.
- g) Aurreko atalean sartutako lanpostuentzako data, bere garaian egindako erreklamazioarena izango da.
- h) g) atalean sartutako lanpostuentzat, bi atzera-eragineko data ere izan daitezke eta baita bi balio desberdin ere. Lehenengo kasuak banakako erreklamazioei erantzungo die eta bigarrenak Lanpostuen Balorazio Orokorrari. Horrek zera esan nahi du, banakako erreklamazioak aurrera eginez gero, gaur egun indarrean dagoen Balorazio-azterlanaren inguruan erkatuko da, eta erreferentziatzen hartuko diren datak, alde batetik erreklamazioa bera egindako eta bestetik gaur egungo Balorazio-azterlana indarrean jarriko den data, hots, 2003-07-31koa izango dira. Data horretatik aurrera, lanpostuaren balorazio-emaiza, balorazio berriaren markoan egindako beste bat gehiago bailitzan erkatuko da, eta atzera-eraginik izatekotan, 2003-08-01etik izango du.
- i) Pertsonaleko zerbitzuek jardura hori burutzen duten 3 edo 4 enpresen zerrenda egingo dute interesatuta baldin badaude eskaintzak aurkez ditzaten. Eskaintza horietan honako hauek jasoko dira gutxienez: erabiliko den metodologia; eskarmentua; azterlana egiteko epeak eta horretarako erabiliko diren giza baliabideak.

2. 2003ko irailaren 19ko Alkatetzako ebazpen bidez, prozedura negoziatu Beasaingo Udaleko lanpostuak, Antzizar Kirolaren Udal Erakundea izeneko fundazio publikoak eta Udal Euskaltegiko eta Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko bulegoetako lanpostuen

balorazio-azterlana egiteko deialdia egitea erabaki zen. Lehiaketaren prezioa 19.500 €-tan finkatu zen.

3. Lehiaketan parte hartzeko hiru enpresei dei egin zitzairen, baina eskaintza "LKS, KOOP. E."k bakarrik aurkeztu zuen, eta bera aztertu ondoren, gobernazio-batzordeak, 2003ko azaroaren 13an egindako bileran, bera kontratatzea proposatu zuen.

4. Horren ondorioz, 2003ko azaroaren 20an, Alkate jn.ak, Beasaingo Udaleko lanpostuen, Antzizar Kirolaren Udal Erakundea izeneko fundazio publikokoen eta Udal Euskaltegiko eta Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoko bulegoetako lanpostuen balorazio-azterlana egiteko kontratua LKS enpresari HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEI EUROTAN (16.820 €-tan) BEZ barne izanik esleitzea ebatzi zuen.

5. Lanpostuen balorazioa egiteko agindua, funtzionarioen eta lan-hitzarmeneko pertsonalaren ordainsariak Euskal Funtzio Publikoaren Legean (EFPL) eta uztailaren 30eko Euskal Herri Administrazioetako funtzionarioen ordainsarientzat argitaratutako 207/1990 Dekretuan aurreikusitako egiturari egokitzeko egiten da.

6. LKS enpresarekin gogoeta-prozesua ireki da ondorengo helburuen inguruan:

- Jarraipen-batzordearen eraketa eta abiaraztea.
- Eginkizunen Eskuliburua prestatu eta baliozkotzat ematea.
- Balorazio-eskuliburua aurkeztu eta balorazio-prozesuan zehar aplikatzeko metodologia.
- Lanpostuen eta kalifikazioen balorazioaren proposamen teknikoaz egindako erkaketak eta ekarpen-biltzeak.
- Kalifikazioak batzordeak aztertu eta baliokidetzak ekonomikoen metodologia balioztatu; balorazioaren hasierako ordainsari-emaitzak eta dakartzan erantzukizun ekonomikoak aztertu.
- Interesatuei behin-behineko emaitzak jakinarazi eta alegazioak aurkezteko epea ireki.

LKS enpresak egindako Lanpostuen Balorazio Azterlanaren emaitza gisa ateratzen den hasierako ordainsarien proposamena aurkeztu eta egindako alegazioen berri eman eta Lanpostuen Balorazioaren Jarraipenerako Batzordeak baliozkotzat eman ondoren, batzorde horrek gobernazio-batzordeari pasatuko dizkio eta honek Udalbatzari:

1. Aurkeztutako alegazioak I. Eranskinean ezarritakoaren arabera ebazteko.

2. Balorazioa egin zaien lanpostuetako pertsonalari ordainsariak II. Eranskinean ezarritakoaren arabera finkatzeko. Ordainsari horiek ondoren adierazten dira:

LANPOSTUA	TALDEA	L.O.
KONTUHARTZAILEA	A	27
IDAZKARIA	A	27
APAREJADOREA	B	22
ZERBITZU-BURUA	B	22
KUDEATZAILEA (ANTZIZAR KIROLDEGIA)	A	25
ANTOLAKUNTZA-TEKNIKARIA	A	24
OFIZIAL-ONDOKOA (BURUA)	C	22
PERTSONALEKO TEKNIKARIA	B/C	21
ASISTENTE SOZIALA (BURUA)	B	21
ITZULTZAILEA	B	21
DIRUZAINA	B/C	21
KULTURA-DINAMIZATZAILEA	B	20
ASISTENTE SOZIALA	B	19
GIZARTE ERAGILEA	B	19
AGENTE LEHENA	D	17
HARRERA BULEGOKO KOORDINATZAILEA	C	19
LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA	C/D	19
MONITORE HARRERAGILEA	C/D	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA (G. ONG.)	C	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA (KONTUH.)	C	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA (HIRIGIN.)	C	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA (ZERG.BIL)	C	17
DELINEATZAILEA	C	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA, INFORMATIKA SAREAREN KUDEATZAILEA	C	17
ADM.OROKORREKO ADMINISTRARIA (ALKATEAREN IDAZKARIA)	C	17
MANTENIMENDU LANGILEA	D/E	15
GARBIETAKO ARDURADUNA	D	15
ADM.LAGUNTZAILEA (UDALTZAINGOA)	C/D	17
URAREN ARDURADUNA	D	15
AGENTEA	D	14
BALIOANIZDUN MONITOREA	C/D	17
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA (KUE)	C/D	17
ZABOR-ARDURADUNA	D	13
ADM.OROKORREKO LAGUNTZAILEA (HARRERA BULEGOA)	C/D	17
ADM.OROKORREKO LAGUNTZAILEA (PERTSONAL)	C/D	17
ADM.OROKORREKO LAGUNTZAILEA (ZERBITZ.)	C/D	17
ADM.OROKORREKO LAGUNTZAILEA (KULTURA)	C/D	17
ADM. LAGUNTZAILEA (EUSKALTEGIA)	C/D	17
ADM. LAGUNTZAILEA (MUSIKA ESKOLA)	C/D	17
ADM.OROKORREKO LAGUNTZAILEA (KONTUH.)	C/D	17
OBRETAKO LANGILEA	D	12
MANTENIMENDUKO LAGUNTZAILEA (KUE)	D/E	12
OBRETAKO PEOIA	E	12
ZABOR BILKETAKO PEOIA	E	10
KALE-GARBITZAILEA	E	11
ETXE-GARBITZAILEA	E	10

3. Ondoren aipatzen diren neurri orokor guztiak onetsi:

- a) Saileko Buruzagitza betetzen ari den Gizarte Laguntzailearen lanpostuari, bere eginkizunak proposatutako ordainsarien emaitzan sartu eta baloratuta daudenez, izena aldatu eta GIZARTE-LAGUNTZAILEA edo ASISTENTE SOZIALA (Burua) jarriko zaio.
- b) ADMINISTRARI-LAGUNTZAILEAK: Udaleko pertsonalaren plantila desberdinetan (Beasaingo Udala, Antzizar kirolegia, Udal Euskaltegia eta Beasaingo Loinatz Musika Eskola publikoa) dauden Administrari-laguntzaileen postu guztiak (D maila), Administrari-postuz (C maila) ordezkatuak izango dira. Lanpostu horiek barne-igoera bidez hornituko dira eta horretarako jarduera-egutegi bat ezarriko da.
- c) BEGIRALEA EDO MONITOREA (KUE): D taldeko Monitore edo Begirale postua, C taldeko beste Begirale edo Monitore batez ordezkatu da eta bere hornikuntza barne-igoera bidez egingo da.
- d) BIBLIOTEKAKO LAGUNTZAILEA: Bibliotekako laguntzailea C-B lanpostu batez ordezkatu da eta bera hornitzeko halaber, dagokion barne-igoera egingo da.
- e) OBRETAKO ETA BIDE-GARBIKETAKO LANTALDEAK:
- Bide-garbiaketako eta obretako peoi-izendapena duten lanpostuak, balioanitzeko lanpostutzat aitortzen dira.
  - E taldeko garbitzaile-postu bat, D taldeko obratako langile batez ordezkatu da eta bere hornikuntza barne-igoera bidez egingo da.
  - Obra eta mantentze-lanetako Taldeburu-postu bat sortuko da (D taldea), eta dagokion barne-igoera bidez hornitua izango da.
  - Lanpostuen izenak aldatu ondoren adierazten denaren arabera:
  - Kale-garbitzaile lanpostuari Bide-garbiaketako peoi balioanitz izena emango zaio.
  - Obratako langile eta obratako peoi lanpostuei, Obra eta mantentze-lanetako langile izena emango zaie (D/E taldeak).
- f) ORDAINSARIAK:
- Lan-hitzarmeneko pertsonalaren ordainsariak, orain arte izan dituzten berme berdinez zuzkitzea.
  - Udal Euskaltegian eta Musika Eskolan ordainketetarako erreferentzia-markoari eustea.
- g) ESKURAGARRITASUNA: Bilerak egiteko eta beste jardun batzuetarako lanorduez kanpoko eskuragarritasuna eskatzen zaien lanpostuak, orain arte ezarritakoarekin konpentsatuko dira, hots, orokorki ondorengo hauekin:

- Asteroko maiztasuna duten bileretara joatea: urtean 80 ordu gozatzeko aukerarekin.
- Hamabosteroko maiztasuna duten bileretara joatea: urtean 40 ordu gozatzeko aukerarekin.
- Hilobiratzeko zerbitzua: 3.908,90 € gordinekin 2004an.

AURREKO BALORAZIOA: Gaur egungo balorazioa egin aurretik zeuden erreklamazioei kasu egin eta aurrekoan TEA-CEGOS etxeak egindako balorazio-azterlanean erabilitako irizpide berberak aztertuta, balorazioaren jarraipena egiteko Batzordeak proposatuta, onartzea proposatzen den emaitza, ondorengo da:

- KULTURA-DINAMIZATZAILEA: 13. maila
- Bibliotekako laguntzailea: 8,5. maila
- Mantenimenduko langilea: 10. maila
- Garbiketa-zerbitzuko Burua: 10. maila
- Administrazio-laguntzailea (KUE): 9. Maila”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Vamos a votar en contra porque no se nos ha permitido intervenir en la mesa de valoración. En cuanto al contenido, hay muchas diferencias entre los distintos puestos de trabajo, que podíamos enunciarlos, pero no vamos a entrar a dar nombres”

Julio Herreros jaunak (PP): “Nos vamos a abstener porque creemos que es el gobierno municipal el que tiene que dar solución a este problema con los funcionarios.”

Alfonso Segade jaunak PSE-EE/PSOE: “Nosotros nos vamos a abstener, pero vamos a argumentarlo. Se ha hecho una valoración de puestos donde la oposición de minoría minoritaria ha sido ignorada o excluida. Cuando no se participa no hay criterios para opinar. Ha sido una valoración, que aunque está aceptada por el Comité de Empresa, parece ser que ha producido en la plantilla de este Ayuntamiento, un cierto desasosiego o malestar. Cuando se hizo la valoración del año 1993-1994, en la que yo participe activamente, el objetivo era, además de ajustar los salarios de los puestos de trabajo, lograr una cierta estabilidad laboral y yo creo que los conseguimos. Ahora se cuestiona si era necesario hacer una valoración e incluso si lo que se ha gastado en la valoración, se debería de haber repartido a modo de paga entre los trabajadores, porque algunos de ellos se hubieran sentido más satisfechos. Como anteriormente he dicho nos vamos a abstener porque no hemos participado, pero si tengo que decir que el Sr. Alcalde, a hechos consumados, es decir, cuando estaba terminada la valoración, ha tenido la amabilidad de explicarnos cómo se había seguido el procedimiento.”

Malu Vallés andreak (EAJ/PNV-EA): “En respuesta a la intervención del partido socialista decir, que en la anterior valoración de la que se vanagloria el Sr. Segade, se establecía una grave problemática para los puestos más bajos. En la actualidad, después de varias legislaturas de gobierno esa situación se recondujo, se valoró a los trabajadores, se les fue dando unos acuerdos de gobierno por el cual se aumentaban sus valoraciones.y actualmente todos los trabajadores de este Ayuntamiento parten de un nivel ocho de valoración, lo cual no existía en la situación anterior. Por otro lado, está el acuerdo al que se ha llegado en este Ayuntamiento de que no se saque ninguna plaza más de auxiliar administrativo. También hemos adquirido el compromiso de que todos los auxiliares pasen en unos cuatro años a ser administrativos y que no van a pasar nunca diez años más entre una valoración y otra. Se ha establecido una comisión de seguimiento que va a valorar los diferentes puestos o las posibles divergencias que puedan surgir en el momento en el que surgen, no diez años después.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Yo invito al Presidente de la Comisión a que pregunte a los empleados de esta empresa cuál es su malestar o su satisfacción.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Los niveles de las escalas superiores están contrastados y son parecidos en los municipios de características similares, algunos estaban infravalorados y se han corregido. Normalmente las valoraciones tienden a subrayar los valores de los niveles superiores. En este caso, por acuerdos de empresa, se ha hecho un esfuerzo para adecuar los niveles inferiores, y creo que es una valoración socialmente aceptada. En cuanto a la integración de la mesa de valoración, había una representación social y una representación política integrada por los miembros de la coalición, pero a este respecto decir, que en vez de crear una comisión podíamos haber creado también una asamblea. En todo momento se ha intentado dar información sobre el proceso seguido.

A Julio Herreros decirle que ahora, es el Gobierno Municipal quien está tomando el acuerdo después de los informes técnicos.

Teniendo en cuenta el montante del salario bruto total, podríamos decir que ha habido un incremento por encima del 8%. En ese sentido podemos decir que la valoración ha sido positiva para los trabajadores. Aunque se hubiese incrementado el 20%, seguramente el malestar hubiese existido, ya que el problema es la comparación con el resto de los puestos. Después de una valoración, siempre hay un problema de preocupación, malestar y ansiedad, pero creemos que esto se va a posar y vamos a seguir así. Respecto lo que ha supuesto económicamente la valoración, podemos decir que estamos en 130.000 € anuales de subida frente a los 18.000 € que ha costado la valoración.”

Gai behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA)  
Aurkako botoak: 1 (EB)  
Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE, PP)

Horren ondorioz, aho batez onartu da lanpostuen balorazioa.

Una honetan Aitor Aldasoro jaunak Osoko Bilkura utzi egin du.

### **3.- AURREKONTUA EXEKUTATZEKO ARAUA.**

Alkate jaunak esan du 2005. urteko aurrekontua onartu zenean, aurrekontua exekutatzeko araua ere onartu zela, baina orain aldaketa batzuk egin direla eta horren ondorioz, aldaketa hori onartzea proposatu da. Aldaketak honetan datza:

- Aurrekontuko kudeaketa arindu egiten da, Foru Arauaren aldaketa dela eta.
- Langileei etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko arauak ezartzen dira.
- Subentzioak emateko arauak ezartzen dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da

### **AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA**

#### **1 artikulua.- Printzipio orokorrak**

Aurrekontuaren onespén, kudeaketa eta likidazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauko eta Arau honetako xedapenetara lotuta egin beharko dira. Arau honen indarraldia Aurrekontuarena izango da. Beraz, Aurrekontuaren luzapen kasuan, epe horretan ere oinarri hauek indarrean izango dira.

Aurrekontua gauzatzeko Udal Arau hau, Udalaren eta bere Organismo Autonomoen Aurrekontua exekutatu eta garatzerakoan aplikatuko da.

#### **2. artikulua.- Aurrekontu Orokorraren edukina**

Udal sektore publikoaren Aurrekontu Orokorra, gastu eta sarrera bateratuak 20.922.045,26 eurokoak dituena, honako hauek osatuko dute:

- a) Udalaren Aurrekontua, 11.162.464,16 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

b) Beasaingo Udal Euskaltegia organismo autonomoaren Aurrekontua, 389.835,24 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

c) Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoa organismo autonomoaren Aurrekontua, 449.186,02 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

d) Antzizar Udal Polikiroldegia organismo autonomoaren Aurrekontua, 863.694,00 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

e) Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontua, 8.708.577,88 eurotako gastu eta sarrerak dituena.

### **3. artikulua.- Kredituen lotespen juridikoen mailak**

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

Programa funtzionala eta artikulua, inbertsio errealetan, kapital transferentzietan eta finantza aktiboetan.

Programa funtzionala, kapitulua eta azpiorganoa ondasun arruntetan, transferentzi arruntetan eta zerbitzuen erosketetan.

Kapitulua, pertsonalaren gastuetan, interesetan eta pasibo finantzarioetan.

### **4. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak**

Kontsignaziorik ez duen eta 3. artikuluan xedatutako lotespen maila gainditzen duen gastua egin behar denean, 21/2003 Foru Arauaren 29 eta hurrengo artikuluetan zerrendatutako arto dagokion kreditu aldaketa espediente izapidetu beharko da, legezko aginduen eta Oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera.

Ez da kreditu aldaketa kontsideratuko baizik eta kontabilitate-moldaera, lotespen maila berdineko poltsa baten barruan kontusail berria sortzea. Honek aldaketa kuantitatiborik ez baitu suposatzen eta egindako gastu motaren informazio gehiago ematen baitu.

6., 7. eta 8. Kapituloetan kontusailak sortu ahal izango dira, Aurrekontuan aurreikusitako ekintzak modu desberdinean egiteko baina beti ere helburu berdina mantenduz. Aurrekontuko zuzkidura Kreditu Transferentzien bidez egingo da.

#### *1.- Kreditu zabalkorrak*

21/2003Foru Arauaren 24 artikuluan xedatu bezala, kreditu zabalkuntza, Arau hauetan zehazki zerrendatutako zabalkor izaera duten kontusailen arteko batean kreditua gehituz eta kreditu eragiketetatik ez datozen lotutako baliabideen arabera zehazten den aurrekontuko gastuen igoera da. Zabalkuntza egin ahal izateko, beharrezkoa da zabaldu nahi den kreditura afektatutako sarreren aurrekontuan aurreikusitakoak baino eskubide gehiagoren onespena.

Gastuen Aurrekontuko honako partidak zabalkorrak izango dira:

KREDITU ZABALKORRAK			FINANTZAKETA	
PARTIDA	IZENA	HAS.ZENB	PARTIDA	IZENA
90.214.121.00.00	Ezbeharrak	6.000,00 €	2.00.00.399.000.00.02	Hondamenak
90.227.551.10.01	Egik.Subsidiarioak	1.000,00 €	2.00.00.480.000.00.03	Egik. Sub. Ekarp.

Kredituen zabalkuntzarako espediente izapidetu eta Alkate-Lehendakariak onartu beharko du.

## 2.- Kreditu Transferentziak

Programa funtzional baten barneko transferentziak Udal Entitatearen Lehendakariaren eskuduntzakoak izango dira, inbertsio errealerako aurreikusitako kontsignazioak gutxi ditzaketenak izan ezik, Osoko Bilkurak onetsiko ditu eta. Nolanahi ere, Alkatearen eskuduntzakoak izango da 6., 7. eta 8. Kapituluetan kontusail berriak sortzeko transferentzia, helburu berdina mantenduz Aurrekontuan aurreikusitako ekintzak modu desberdinean egin ahal izateko direnean.

## 3.- Kreditu Gaikuntza

Aurreikusi gabekoak edo aurreikusitakoak baino sarrera handiagoak ekitaldian lortuz gero, gastu aurrekontuan kredituak sortu ahal izango dira.

Kredituak gaitzeko moduko sarrerak 21/2003 Foru Arauaren 31.2 artikuluan xedatutakoan izango dira.

Lortutako sarrerak finalistak direnean, Alkateak baimenduko du gaikuntza, gainerako kasuetan eskuduntza Osoko Bilkurari dagokiolarik.

## 4.- Kreditu Txertaketa

Indarrean dagoen ekitaldiari, aurreko ekitaldiko aurrekontuko gastuen orrien barruko ordainketa kredituak txertatu ahal izango zaizkio, beti ere aintzatetsiak diren betebeharren menpean egon gabe 21/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiak batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

21/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.

Zerbitzuberuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.

Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu dirusarrera helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.

Kredituen txertaketa aurreratuek jatorrizko aurrekontuan zuten helburu berbera izango dute.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude. Horretarako, finantzaketa iturritzat hartuko dira apirilaren 1/2003 Foru Arauaren 32 artikuluan jasotakoak.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoek kontuhartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

#### *5.- Kreditu Gehigarriak*

Zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabalezina bada, 21/203 Foru Arauaren 34 artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Urtean zehar eta metatzeagatik aurrekontuaren %5a baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarriak onesteko eskumena Alkateak izango du.

### **5. artikulua.- Aurrekontu-exekuziorako prozedura erregulatzeko arauak**

#### *1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak*

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

#### *2.- Gastuen baimena eta erabilera*

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Lehendakariaren eskuduntza izango da 60.100,- eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera.
- b) Gobernu Batzordearen eskuduntza izango da 60.100,- eurotik gorako gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedienteari alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurrizko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontuhartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du.

Pertsonalari aurrerakinak 10.00.823.121.00.01 eta Pertsonalari aurrerakinak: etxebizitza erosketa 10.00.823.121.00.02 deituriko kontusailtako kredituaren erabilgarritasunak, Arau honen barruan I Eranskina izenarekin jasotzen den Maileguak emateko Arautegian xedatutakoaren arabera dagokion espedienteaz izapidatzea beharrezkoa izango da.

Betebehar horretarako izendatutako Batzordeak, mailegua ematearen bidez kotasuna erizpenduko du eta aldekoa den kasuan, Alkate J.aren Dekretu bidez egikarituiko da.

#### *3.- Obligazioen onarpena*

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisuetatik sortutako obligazioak.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak diligenza bana egin beharko du faktura bakoitzean, alorreko ordezkariaren oniritzia daramana, honakoa jasoz:

Materiala, obra edota hornidura hartu izanaren adierazpena eta berarekiko adostasuna.

Zein aurrekontu partidatan eta zein katebururen erreferentziapean kontabilizatu behar den.

#### *4.- Ordainketaren agindua*

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

#### *5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea*

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:

Gastuen baimena eta erabilera, udal entitatean legez hartutako konpromisuetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, dirulaguntzen emakida, maileguen interesak eta amortizazioa.

Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Okerbidez egindako ordainketa guztien erantzule izango dira pertsonalki, sailtako buru, funtzionario eta eragiten dituzten Zinegotziak, bai kredituak kitatzean, dokumentuak luzatzean edo konpromezuak onartzean, bakoitzari emanak zaizkion eginkizunen arabera.

Edozein mailatako agintari eta funtzionarioak ere, maltzurkeria, erru edo utzikeria larriarengatik ebazpenak onartu edota legezko xedapenen arau-haustedun egintzak egiten badituzte, Udalbatzari haien ondorio diren kalteak eta galerak ordaintzera behartuak egongo dira.

Ordainketa Agintzailea eta Kontuhartzailea erantzukizun horietatik salbu egongo dira eta dagokien arloan idatzizko medeantza bidez zurituko dute beren jarduna, akordio, egintza edo ebazpenaren legez kanpokotasun edo hutsaltasunari buruz.

Salmentak: Baliogabeko gauzen salmenta, Alkatetza-Lehendakaritzaren aginduz egingo da 1.505,00,- euro baino gutxiagoko balioa dutenean, baina ongi ulertuta, oinarri hau, Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentei bakarrik dagokiela

#### **6. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak**

Zuritu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak 21/2003 Foru Arauan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira. Aldizkako izaera duten edota errepikakorrek diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute eta ondorengo prozeduraren arabera emango dira:

Kutxa finkoko aurrerakinak behin bakarrik baimenduko dira, dagokion arloko Lehendakariak proposatuta, Alkatetzaren ebazpenaren bidez, bertan ondorengo kontzeptuak aipatuko direlarik: baimentzen den departamendua, kudeaketaren arduraduna eta kopurua.

Fondo-hornidura hori automatikoko berritu ahal izango da aurreko likidazioa aurkeztu ondoren.

Likidazioarekin batera, egindako ordainketa guztien frogagiriak aurkeztuko dira, Departamendu-buruak ontzat emanda, eta ordainketa zein kontusailaren kargura egiten den adierazpenarekin.

Aurrerakinen ordainketetarako dagokion ordainketa agindua sortu beharko da "zuritzeko" izaeraz eta lehen aipaturiko araudiaren arabera.

Hazienda Batzordeari emango zaizkio kontuak, aurrerakin horien erabilpena berkontsideratu ahal izateko.

Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean udalaren izenean, jasotako dirutza bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako, beren sinadurarekin soilik erabili ahal izateko. Guztiz galerazita gelditzen da dirutza hori nork bere helburu pertsonaletarako erabiltzea.

Udal diruzainak liburu laguntzaile bat eraman beharko du kutxa finkoko aurrerakinak kontabilizatzeko, bertan zehaztuz jasotzaile bakoitzari emandako dirua eta zuritutako zenbatekoa.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal kontuhartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri, kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 15a baino lehen.

Aurrerakinak zuritzean, dagokion aurrekontu-partidari aplikatu beharko zaizkio ordain-aginduak.

## **7. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalteordainak.**

Funtzionarioek eta pertsonal kontratatuak egindako zerbitzuen kalteordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan jasotako indemnitzazioak jasotzeko eskubidea izango dute.

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, funtzionario eta pertsonal kontratatuentzat ezarritako dieta eta joan-etorrien kalteordainak jasotzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek, bai gainerako udal langileek, egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalteordainaren zenbatekoa.

## **8. artikulua.- Dirulaguntzak**

Subentzioen Lege Orokorra den, azaroaren 17ko, 38/2003 Legean, xedatutakoaren arabera, arau honek bere II Eranskinean dirulaguntzen emakidarako prozeduretan aplikagarria izango den Arautegia jasotzen du.

## I ERANSKINA

### **BEASAINGO UDALEKO, ANTZIZAR KIROLDEGIKO, UDAL-EUSKALTEGIKO ETA BEASAINGO LOINATZ MUSIKA-ESKOLA PUBLIKOKO LANGILEEI LEHEN ETXEBIZITZA EROSTEO ETA KONTSUMORAKO MAILEGUAK EMATEKO UDAL-ARAUDIA.**

#### **I.- ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. atala**

Araudi honen helburua zera da: Beasaingo Udaleko, Antzizar kiroldegiko, Udal Euskaltegiko eta Beasaingo Loinatz Musika Eskola publikoko langileei ohiko etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko arauak jartzea.

#### **II. ATALBURUA. MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTEN UDAL-LANGILEAK.**

##### **2. atala**

Honako arau hauek, Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzu-jardunean ari diren langileei aplikagarri izango zaizkie, ondorengo izaera hauetakoren baten jabe izanez gero:

a) Karrerako funtzionarioak.

b) Lan Zuzenbidearen mendeko langile finkoak.

c) Beasaingo Udalaren eta/edo bere erakunde autonomoetakoren batean zerbitzuak prestatzen gutxienez ere urte bete era jarraikian egin duela egiaztatzen duten beste pertsona batzuek, aldeztatik Alkatetzak egindako aldeko txostena izanda.

d) Beasaingo Udalaren eta/edo bere erakunde autonomoetakoren batean zerbitzuak prestatzen ari diren langileek eta aurretik aipatutako a), b) eta c) ataletan deskribatutako baldintzetako ezein ere ez dutenek, gehienera ere duten soldataren bi hilabeteko kopurua adinako kontsumo-mailegua hartzeko eskubidea izango dute, aldeztatik Alkatetzak egindako aldeko txostena izanda.

#### **III. ATALBURUA. KONTSUMO-MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN BEHARRIZANEN SAILKAPENA.**

##### **3. atala**

Ondorengo kasuak, kontsumoko mailegua jasotzeko eskubidea ematen duten eta agiri bidezko frogak behar dituzten beharrizanak dira:

**3.1.** Istripuek edota gaixotasun larriek eragindako lesio, ondorio eta gastuetatik ondorioztatutakoak; zuzeneko familiako partaideren baten heriotza gorpuaren lekualdaketarekin. Gaixotasun-asegurua estali gabeko mediku-gastuak, langileak berak edo ondorengo ahaidetasun-maila duten familiakoek izanak direnean: Ezkontideak edo udal-langilearekin bikote moduan urte bete baino gehiago bizi den bikotekideak, agiri bidez egoera hori egiaztatu ondoren.

Seme-alabek.

Gurasoek.

**3.2.-** Langilearen familiaren ohiko bizileku den etxebizitzaren kontra sortutako hipoteka-kredituen amortizazioak eta interesak.

**3.3.-** Ohiko etxebizitzaren zaharberritzea, altzariak barne.

**3.4.-** Langile eskatzaileak edo bere seme-alabek ikastetxe ofizialetan egindako ikasketen matrikulak edota egonaldiaren gastuak. Atal honen barruan sartzen dira halaber musika-tresnen erosketek eragindako gastuak ere.

**3.5.-** Trakzio mekanikodun ibilgailua erostea.

**3.6. -** Langilearen ezkontza.

**3.7.-** Seme-alaben jaiotza edo legezko adopzioa.

**3.8.-** Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza.

**3.9.-** Udal-langilearen dibortzioa, legezko banatzea edo ezkontzaren deuseztatpena.

**3.10.-** Ohiko etxebizitza Beasaina aldatzea.

**3.11.-** Kalifikazio hori merezi duten antzeko beste inguruabar batzuk.

#### **IV.- ATALBURUA. KONTSUMORAKO MAILEGUEN BALDINTZA OROKORRAK, ZENBATEKOAK ETA ITZULTZEKO EPEAK.**

##### **4. Atala**

Kontsumorako banakako maileguak jasotzeko eskubidea duten udal-langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeak lortu ahal izango dituzte:

##### ZENBATEKOA ITZULTZEKO EPEA

3.000 euro	20 hileko
6.000 euro	35 hileko
9.000 euro	50 hileko

Adierazitako kopuruak ez diren beste kopuru batzuetako maileguak emanez gero, eta beti ere ezarritako gehienekoak baino handiagoak ez direla, itzultzeko erabiliko diren hilen kopurua, hileko 170 euro itzuliz ateratzen dena izango da.

Kontsumorako kreditu honen emakiden guztizkoa, urtean 5ekoa izango da kopururik handienak kontuan hartuta, eta eskaerak egindako ordena berean emango dira aurrekontuan izendatutako kopurua agortu arte.

Maileguaren zenbatekoa inoiz ere ez da izango sortu duen beharrianaren kopurua baino handiagoa.

Epeen arabera hilero Itzuli beharreko zenbatekoak, hilero deskontatuko dira esleipenak bereganatu dituztenen nominatik.

## **V.- ATALBURUA. OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEKO MAILEGUAK.**

### **5. atala**

Ohiko etxebizitza erosteko maileguak jaso nahi dituzten udal-langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeen araberakoak lortu ahal izango dituzte:

#### ZENBATEKOA ITZULTZEKO EPEA

25.000 euro    12 urte

Eskaera mota honi urre egiteko urtero izendatutako kopururik handiena, aipatutako zenbatekoen modulu batena izango da.

### **6. atala**

Eska litezkeen betebeharrak:

a) Eskaeran adierazi egin beharko da, etxebizitza ohiko bizilekutarako erosten dela eta salerosketa-kontratu, eskritura, eraikitzaera doan profesionalaren zerbitzu-errentamenduaren kontratu edo Arkitekto Elkargoak ikus-onetsitako obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiri bidez zuritu beharko da.

